

EUSKADIKO UDALEN 'MARTXOAREN 8'-KO ADIERAZPENAK POLITIKAN EMAKUMEEN PARTE- HARTZEA ETA ORDEZKARITZA OREKATUA IZATEA ALDARRIKATZEN DU

- Iragan otsailaren 9an udal guztietara bidalitako testuak guztira 8 printzipio edo konpromiso adierazten ditu, eta alderdiei ere horiek bete ditzaten eskatzen zaie. Besteak beste, honakoak dira: ordezkaritza orekatua izatea kontsultarako eta erabakiak hartzeko organoetan; funtzioak eta eskumenak esleitzerakoan estereotipoak saihestea; kontziliazio-neurriak martxan jartzea edo/eta indartzea, edota emakume hautetsien jabekuntza indibidual eta kolektiboa sustatzeko espazioak eta sareak sendotzea.
- Gaur goizean, tokiko 6 hautetsik, Bizkaiko alkateak eta zinegotziak denak, Adierazpenaren lehenengo irakurraldi publikoa egin dute 'Emakumeen Ezohiko Batzarrean'; lehenengoz, Gernikako Batzarretxean egin da aipatutako batzarra.

Bilbon, 2017ko martxoaren 1ean. Martxoaren 8ko 'Emakumeen Nazioarteko Eguna' gertu dagoenez, EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartek Adierazpen instituzional bat prestatu du eredu gisa, eta, ohikoa den moduan, Euskadiko udalen esku jarri da, dagozkien udal-organismoek (udalbatzak eta bozeramaileen batzarrak) testua berrets dezaten, aipatutako oroitzapen ospakizunaren aurretik.

Adierazpen Instituzionala EUDELen Batzorde Eragileak onartu zuen iragan otsailaren 9an, eta egun horretan bertan bidali zen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udal guztietara.

Hain justu, gaur goizean, 12:50ean, Gernikako Batzarretxean, lehen aldiz publikoki irakurri da EUDELe egindako Adierazpena, EUDELen eta Emakunderen laguntzarekin, Bizkaiko Batzar Nagusiek lehen aldiz antolatu duten '**Emakumeen Ezohiko Batzarra**'-ren barnean.

Testua euskara eta gaztelania txandakatuz irakurri dute; horretarako, arduradunak tokiko 6 hautetsi izan dira –emakumeak, alkateak eta zinegotziak denak–, Bizkaiko zenbait udalerritakoak eta sentsibiltate politiko guztietakoak. Hona hemen izenak, irakurri duten hurrenkeran emanda: **M^a José Blanco, Portugaleteko alkateordea, PSE-EEren ordezkaria; Inmaculada Zapardiez, Abadiñoko talde independenteko zinegotzia; Amaya Fernández, Barakaldoko Alderdi Popularreko zinegotzia; Carmen Muñoz, Bilboko zinegotzia, Udalberri-Bilbao en común taldearen izenean; Idurre Bideguren, EH Bilduko Bermeoko alkatea, eta Mari Carmen Urbieta EAJ-PNVko Leioako alkatea.**

Lehenengo Ezohiko Batzar honek Bizkaiko udaletako alkate eta zinegotzien ordezkaritza zabala izan du, bai eta beste lurraldeetakoena ere. Ekitaldira etorri dira **Imanol Landa EUDELen elkarteburua** eta Getxoko alkatea, bai eta EUDELeko Berdintasun ordezkaria eta Galdakaoko alkatea den **Ibon Uribe** ere. Uribe da, gaur egun, Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluko (CCRE-CEMR) Berdintasun Batzordearen lehendakaria.

Alderdiei deia eta 2018ko Europako Konferentzia

Adierazpenak honako hau azaltzen du: *“Udalgintzan, EAEko **udaletako %24,7an soilik daude emakume alkateak, eta euskal herritarren %18,82 ordezkatzan dute. 2015ean, alderdi politikoek %32,58an soilik aukeratu zituzten emakumeak hauteskunde-zerrendetako zerrendaburu, eta, iraunkortasunari dagokionez, emakumeek abiadura motelagoan igo ohi dira mailaz, baita lidergoan denbora gutxiago iraun ere.**”*

Zentzu horretan, EUDELek alderdiei eskari zuzena egiteko (Adierazpenaren azken lerroaldea) aprobetxatu nahi izan du hainbat euskal erakundetako eta sentsibiltate politiko guztietako emakume hautetsi eta liderren topaketa hau:

“Emakumeen parte-hartze sozial eta politikoa indartzeko xedez, alderdi politikoei eskaera egiten diegu konpromiso hauek beren gain har ditzaten eta beste eragile politiko eta sozialentzat ereduizkoak diren neurriak har ditzaten.”

Leioako alkate M^a Carmen Urbietak “hurrengo mugarriaz” ere hitz egin du. Hain justu, **Berdinsarea** (Eudel-Emakunde) berdintasunaren alorrean lan egiten duten udalen sarera udalerrri gehiago biltzea da mugarri hori. Horrez gainera, Bilbon, 2018ko ekainaren 11tik 13ra bitartean egingo den **“Berdintasuna, Aniztasuna eta Inklusioa” Europako Konferentzia**ara begira ere hitz egin du. Konferentzia hori da, nazioarteko mailan, tokiko eta eskualdeko agintarien topaketarik garrantzitsuenak, eta CCRE-CEMR Europako Udalerrri eta Eskualdeen Kontseiluak, EUDELek eta Bilboko Udalak antolatuko dute elkarlanean.

Ordezkaritza orekatua eta bidezko parte-hartzea

EUDELen Adierazpenak Europako Kontseiluko Toki eta Eskualdeko Agintarien Kongresuko Txosten europarreko gomendioak eta Emakumeek eta Gizonek Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutunetik eratorritako konpromisoak onartzen ditu, baita Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean ezarritako betebeharrak ere, eta konpromisoa hartzen du tokiko esparruetatik **zortzi printzipio** sustatzeko, politikan emakumeen parte-hartzea eta ordezkaritza bultzatzeko.

Testuaren asmoa da emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua bermatzen duten konpromisoak gehitzea, sarbiderako **oztopoak ezabatuta** eta ekintza positiborako neurriak erabilita. Halaber, presentziaz gain, **politika egiteko espazioetan eta moduetan eragina izateko beharra** ere hartzen da kontuan, karguaren jardun berdintasunezkoagoa eta eragin ekitatiboagoa bermatuko duten ereduak ahalbidetu daitezzen, emakumeen **jabekuntza** helburu duten **funtzioak, alorrak eta ordutegiak** esleitzea eta programak indartzea barne hartzen duten neurrien bitartez.